

Eskilarapeko ateneoa

Bost urte bete berri dituen gune sozial honetan hamaika ekimen egiten da urtean zehar: hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak eta erakusketak, besteak beste.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

2005. urtean sortu zen. Herriko elkarte batzuek eta gizabanako batzuek elkartu eta gero sortutako gunea da.

- Zenbat kide zarete?

50 laguntzaile ditu Eskilarapeko ateneoak. Horiek hainbat modutan laguntzen dute: diru ekarpenak eginez, jarduerak antolatuz eta lokala erabiliz, besteak beste. Lokalaren administrazio orokorra 10 lagunez osatutako lan-taldeak kudeatzen du, nahiz eta guztiok parte hartu eta laguntzen dugun. Gainera, lokala erabiltzeko ez da beharrezkoa bazkide izatea.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gune sozial ireki, zabala eta parte hartzailea sortu nahi genuen, ekimen kolektibo zein banakakoen bidez herriari bizitasun sozial eta kulturala emateko gai izango zena. Ondorioz, lokala zabalik dago erabili nahi duenarentzat: edozein pertsonak edo edozein taldek nahi duen jarduera egiteko erabili dezake.



- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Hainbat asanblada egiten dira urtean zehar, jarduera desberdinak antolatu ahal izateko.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Gure lokalean herriko hainbat taldek dute euren egoitza nagusia: Ateneo Libertario, Erkotalde, IMAT (Indarkeria Matxistaren Aurkako Taldea), Komite Internazionalistak, Sahararen lagunak eta Ziprizzintzen taldeek, hain zuzen ere. Astero dantza afrikarra eta marrazki tailerrak ematen dira eta halaber, lokala hitzaldiak, erakusketak eta kontzertuak egiteko erabil-

tzen da. Gastronomia eta ospakizun gunea ere bada, eta hilean behin afari gastronomikoak egiten dira. Taberna eta denda solidario txiki bat dago eta gainera herri-zerbitzuak eskaintzen dira: haur-gunea, software librea, internet eta liburutegia, hain zuzen ere.

- Txangoak egiten dituzue?

Momentuz ez, baina 'Txango-zaleen kluba' osatzen ari gara.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Posta elektronikokoaren bidez: ermukoateneo_lista@listas.nodo50.org edo lokalera etorrita, Ermuko plazan, frontoi osteko eskilarapean.

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78